

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Matilde Aizpurua Zubizarreta

*Zestoa, Gipuzkoa
(1926)*

Aurkibidea



Biografia



1926an jaio zen Lasako turbina-etxean. Ama Elgoibarkoa zuen eta aita Itziarkoa. 6 anai-arreba ziren. Eskolan Lasan ibili zen 6 urtera arte, eta horren ostean Zestoako nazionaletan. Arratsaldetan josten ikasten zuen eskolan bertan. 12 urterekin haur baten zaintzaile lanetan aritu zen. Gerora, taberna batean neskame, denda batean saltzaile eta Zestoako bainuetxeko dendan aritu zen lanean. Gerra garaian 10 urte zituen eta etxetik ihes eginda une gogorrak bizitzea suertatu zitzairen: Eibar, Durango, Algorta eta Santanderren egon ziren, besteak beste. Klean lo eginez bizi beharra ere probatu zuten.

Zintak

ZES-042

- **Proiektua:** Zestoako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-01-26
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

ZES-043

- **Proiektua:** Zestoako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-01-26
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber

Pasarteak

1. 1926an jaio zen Lasako turbina etxean

- **Erref:** ZES-042/002
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:00:14. **Bukatu:** 00:01:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

1926an jaio zen Lasaoko turbina etxean. 6 anai-arreba ziren. Ama Elgoibarkoa eta aita Itziarkoa zituen.

2. Eskolan Zestoako nazionaletan

- **Erref:** ZES-042/003
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:01:08. **Bukatu:** 00:04:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eskolan Zestoako nazionaletan ibili zen Gasteizko maistra erdaldun batekin. Matematikak, gaztelania, dotrina, etab. ikasten zuten. Goiz eta arratsaldez joaten ziren eskolara.

3. Eskolatik irteteen josten ikastera

- **Erref:** ZES-042/004
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:04:22. **Bukatu:** 00:05:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Arratsaldeetan laborea egitera joaten ziren eskolara. 14 urterekin eskola utzi eta ume zaintzaile lanetan hasi zen. Josten ikastera joaten zirenean etxerako lanak egiten zituzten.</p>

4. Jaunartzea egiteko, dotrina derrigorrezko

- **Erref:** ZES-042/005
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:05:49. **Bukatu:** 00:09:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Zazpi urte zituela hil zitzaion aita. Bi jaunartze egin zituen, Zestoan. Dotrina ikasi behar izaten zuten jaunartzea egiteko eta hura ematen zien apaiza izendatzen du. Apaizak deitutakoan bere aurrean jaiki eta ikasitakoa esan behar izaten zuten.</p>

5. Euskaraz ikastetik erdara hutsera

- **Erref:** ZES-042/006
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:09:12. **Bukatu:** 00:10:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Jaiotetxea eta ingurua deskribatzen ditu. Jaunartze txikia Lasako eskolan zebilela egin zuen. Gerra hasi zenean aita hil zitzaion eta turbinako etxetik bidali zituzten. Orduan hasi zen Zestoako eskolan. Euskaraz ikastetik erdarara pasa behar izan zuten.

Transkripzioa

- Eta seiekin in zenduna ta beatzikin in zenduna berdintsua izaten zan?
- Ez, ez, ni, esan dizut, Lasako turbina, ez dakit konturatu zean, hor bado ba aceralia? Konturatu zea?
- Bai, bai.
- Haren parian, ibayan bestaldetik bi hiru etxe badaure. Ez dakit konturatu zean. Zubiya pasauta. Zubiya pasautako etxe hartan jayo nintzan ni. Oin, geroztikan beste bi hiru famili, o lau. Eta goyan beste etxe bat ein due, ta diferente dao, baiña etxia hura zan. Ordun juten giñan Lasora gu, eskola. Sei urtekin o ez dakit zenbatekin hasiko nintzan ni eskola.
- Lenengo Lasaon ibili ziñan?
- Bai, ta handikan in nuan nik komuniyo txikiya esaten genduna. Sei urteko haura. Bueno, errezuak eta asko geyo ez gendun jakingo e? Ta gero, ta gero aitta hil zan hogeita hamahiruan, ta bialdu giñuzen kalea.
- A, eta ordun hasi ziñan hemen.
- Eta ordun hamen. Eta gero gerra etorri zan, esan dizuten bezela, dana erderatu ber izan gendun. Holaxe.

6. Gerra hasi aurreko eguna

- **Erref:** ZES-042/007
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:10:17. **Bukatu:** 00:11:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Gerra hasi zen garaian, Zestoan zegoen, 10 urte zituen. Gerra hasi aurreko egunean, eskolatik egindako irteerari buruzko kontuak kontatzen ditu. Gurasoen aipamena.

7. Amak presoei jana eman eta anaiak zaindu egiten zituen

- **Erref:** ZES-042/008
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:11:52. **Bukatu:** 00:13:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Gerra hasi zenean, bainuetxeko hotelean atxilotuta zeuden presoek jana eramaten zien Matilderen amak, dirua lortzeko. 17 urteko anaia fusila hartu eta bainuetxera joaten zen presoak zaintzera.

8. Gerra garaian, etxetik ihesi

- **Erref:** ZES-042/009
- **Iraupena:** 0:05:47. **Hasi:** 00:13:43. **Bukatu:** 00:19:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Irailaren 20ko egunez, komunistak sartu ziren Akua auzotik behera; eta, baserritarrei konfiskatutako ganaduarekin, herrira jaitsi ziren. Matildek bi ahizpa zituen Eibarren, bat bertara ezkondu eta bestea neskame; eta anaiak haiengana ihes egin behar izan zuen. "Hotel Estaciónekoek" gonbidatu; eta Matilde hara joan zen lagunengana, umeak hartuta, beldurrez. Gau hartan eta hurrengo egunean gertatuak kontatzen ditu.

9. Azkoitira eta Durangora gerratik ihesi

- **Erref:** ZES-042/011
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:19:41. **Bukatu:** 00:23:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra hasi eta zazpigarren hilabetera, familian "gorriak" zituztenak etxetik bidali zituzten. Matilde eta familiakoak ere Azkoitiko senitarteko batzuegana joan ziren; eta handik, Maltzagatik zehar, kotxe blindatuetan Eibarrera eraman zituzten. Han, ospitale moduko batean pasa zuten gaua, jende gehiagorekin batera. Eibarko senideak ere ihesi joanak zirela jakin zuten, eta haiengana joan ziren Durangora.

10. Durangon bonbardaketak etxea suntsitu zienekoa

- **Erref:** ZES-042/014
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:24:36. **Bukatu:** 00:27:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Durangon bizi ziren etxe ondoan eliza zegoen. Haren kontra bonbardaketan hasi eta bertan zegoen jendea hil zen; Matilderen etxea (hutsik

zegoena) bota zuten. Senitartekoak elbarri eta zaurituta geratu ziren. Matilde eta bi anaia amarekin geratu ziren, baina bonbardaketa hasi zenean, ihesari eman eta beste anaiengandik galdu ziren.</p>

Transkripzioa

- Etxe hontan bizi giñan. Gero jun giñan beste kaleko beste etxe batea. Eta eliza zeon hamen onduan, ta eliza intendentziya izan emen zan.

“Intendencia militar” eo tropan, beak jakingo due ze izango zan. Ta holaxe kontra e? Etxia hauxe ta eliza hauxe. Durango zan, oiñ ez dakit nola dan.

Eta objetibua emen zan eliza harrapatzia. Ez dakit eliza harrapatu zuen, elizan mezan zauden beztitan, goizeko beztitan haik. Goizeko beztitan bonbardeau zuen, elizan, eliza zea inguruak, eta Durango dana puskau zuen. Eta elizan barruan mezetan zauden jendia auskalo zenbat hil zian. Ta guk etxe hau, gu bizi giñan laugarren pisu haura, jota beheraiño, zizko.

- Ta zuek nun zeundeten?

- Beste etxea jun orduntxe zazpi egun, ahizpak haurrak izateko eta...

- Eta hutsik zegon etxea, ala zuetako...?

- Ba, ez, hutsik zeon, geu bakarrik gelditu giñan han, geutzako bakarrik. Alkilatu, zea e? Rekisautako etxen bat, txaleta o hola zan ta.

- Baiña puskatu zan, o bota zuen etxe hartan, momentu hartan zuetako iñor ez zan.

- Ez. Gureik ez. Baña...

- Ya junda zendeten bestea.

- Baña gure beste familiya haietakuak hildakuak e bazian, nere edadeko mutil gaz[te] koxkor bat desaparezitu in zan eskombro tartian. Haren ama zanen izeko inbalida gelditu zian, gero hori gero Eibarrekuak zian, ta ikusten giñuzen, baina inbalida gelditu zian, hankak hausita, ta enfin, ta zea. Ta gu “por milagro, por lo que sea”, erten gendun osoik.

- Librau ziñaten.

- Bai. Nere ahizpa bezperan haurra izatea Basurtoa. Bixkiyak.

- Dana pare-paren, bete-beten.

- Nere anayak, galdu giñan bonbardeuan goizian beztitan, ta orduan, zea ematen ziguen, estee, rasionamentua eo esaten dana. Gosayak eta hola, zeozer, ni ez naiz akordatzen ze ematen zuen baña, kafe ta esnia eo zeoze ematen zuen, komedoría esaten zitzayon han, nunbaittea jun ta ume bakoitzantzako eo. Bueno. Han zan bat... o biyak? Ez dakit nola zan.

Behintzat galdu giñan: ama birekin, eta ahizpa? Bai, ama, ama hirukin: bi ahizpa ta mutil koskorra. Ta beste biyak por ai galduta.

- Galdu in ziñaten?

- Galdu, bai ba, bonbardeuan danok alde banata igesi in gendun ta, gu txikiyak amai segiko giñun, baiña beste biyak...

11. Kaletik ihesi, mendian ezkutatuta

- **Erref:** ZES-042/015
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:27:07. **Bukatu:** 00:30:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Bonbardaketatik ihesean, mendi batera joan ziren eta handik aireplanoak ikusten zituzten; Durango dena apurtu zen. Eguerdirako, etxera jaitsi ziren eta anaia batekin egin zuten topo; beste anaia hildakoak jasotzera bidali zuten

soldaduek. Arratsalderako, atzera mendira itzuli ziren eta lurrean egon behar izan zuten ezkutatuta. Ilundu zenean, etxera bueltatu ziren. Hasieran ez zuten anaiaren berririk, baina gero aurkitu zuten.

Transkripzioa

- Ene ba, nun gea? Ezin leike esan, “hor ikusten dittut” esaten deu, baiña ezin leike esan ikusi ez dunak gerra zer dan. Ezin leike esan. Jun giñan mendi batea. Oaindikan emozionau itten naiz. Jun giñan mendi batea. Eta abioiak, zeak aireplanuak hola, ffuutxutxutxutxutxutxu... behe-behe-behe-behitikan, behe-behe-behe-behe-behitikan.

- Durangon bertan mendi batea jun ziñaten?

- Bai, behe-behe-behe-behian, hantxe segi ta segi ta, ta bun-bun-bun-bun-bun... bun-bun-bun-bun-bun-bun-bun-bun... Durango puskau zan, dana kia, dana, dana puskau zan. Ta geo eguardiyan jetsi giñan etxeaiño, ia berriz zeoze.

- Zuek bakarrik ala zuekin batea jende gehio?

- Asko, jende asko. Nunbaittea erten ber zan ba, ta jende asko mendira. Pentsa zazu, ezer ez e? Baiña arbolak, ta iruitzen zitzaigun zala aterpia zeoze...

- Salbazioa.

- Bai, eta jun giñan ba zeara mendira, ta geo eguardiyan etxea, aber ba, patata batzuek jatea. Holakotxen bat jango gendula uste det, pasa ta geo holaxe. Ta anai bat azaldu zan. Gure amak leyua iriki, etorri giñala esateko. Eta anai bat etorri zan. Ta, “nun da ba bestia?” Martzelino zun izena. Ta “Nun da ba Martzelino?”, ta “hildakuak jasotzea eaman due”. Hildakuak holaxe zabillen ba, “aquellos era”... holaxe, holaxe, holaxe zauden. Ta “hildakuak jasotzea eaman due”. Eta bueno...

- Zenek eaman zuen?

- Ba, soldauak eo, baten batzuek, han aginduko zuen baten batzuek. Eta gu berriz'e mendira arratsaldian. Ta goizian gaizki, arratsaldian gaizkiyo. Nik esaten det, errezatzen ikasi baldin banun orduntxe errezau nula, musuaz lurrian pea-pea-pea-pea-pea inda holaxe. Ta, baiña berta-berta-bertatikan ametrallatzen giñuzen e? Ez zun, ez giñuzen jo berko, ta ez giñan hil. Baiña berta-bertatik jatsi iten zian holaxe, esan ber ziet, zea arbola adarra ikutzen zittuela. Behe-behe-behe-behe-behitikan... papapapapapapapa... Hantxe geldi-geldi-geldi-geldi-geldi-geldi-geldi-geldi-geldi, ta pixkat illundu zanian, gure abioi zar hoiak erretirau zian, ta gu ere bai etxea. Baiña anaya falta. Hildakuak etxea, hildakuak jasotzea eaman zuen anaya falta. Eta, ta ez giñakiun, o hil zan, ez zan, jaso zuen, ezar ez giñakiun, ez harek guria, ez guk harena. Eta nere ahizpa jun zan, ba, komedoria esan dizuten bezela afai billa, ez dakit zer, kristalez betetako garbantzuak o ez dakit zer, ez dakit zer eman zigun e? Baiña kristal pusketakin, klaro.

- Dana txikituko zan?

- Hoixe. Eta ez giñakigun anaian berriik, eta lagun batek esan emen ziyon, Marzelino zun izena, esan dizut, ta “Marzelino estaziyan dao, ez daki zuek bizi zeaten o ez zeaten, ta etxea juteko bildurrez dao”. Esan emen ziyon. Jun biyak, lagun biyak, nere ahizpa ta laguna estaziyoa, ta hantxe txokor-txokorrian emen zeon anaya. Klaro, bildurrez akabatzen. Ez zakiyan harek gu bizi giñan o ez giñan. Hoi danak pasau in ber dia. Ta etorri zan behintzat, eta bueno...

12. Algortako errefuxiatuen etxean

- **Erref:** ZES-042/016

- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:33:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Durango zeudela, baserri batera joan ziren; baina, tropak gerturatzeko ari zirela-eta, Algortara bidali zituzten errefuxiatuen etxera. Matildek 10 urte zituen orduan eta gaixotu egin zen "sukar tifoidea" harrapatuta. Bi hilabete egin zituen ospitale batean, mairuak herrira zetozela eta bidali zuten arte.

Transkripzioa

- Jun giñan basarri batea, pentsau zazu ba ze resguardo eukiko gendun, baña behintzat basarri batea, lagun bat
- [...] billatu zenduen baserri batea?
- Bai, hurrungo egunetan mendira juten giñan, baña baserrira. Ez dakit zeñen amastadia o, hori ez dakit nik. Ta hantxe eoten giñan. Ta han pasau giñuzen ez dakit zenbat denbora. Baña hara ere ai zian ba tropak aurreatzen, eta noa jungo eta Algorta.
- Algorta?
- Bai, Algorta.
- Han zer zendun ba?
- Refugiauak. Ez al dakizu zuk hori? Danak aidian bialtzen dittuela ta, nahi du...? Ba hori. Han ere zer gendukan guk, gu "eran", esaten da ba, "errantes, nómadas, pues eso"... ai ama!
- Esandako tokira jun in behar?
- Jun, ta gu Algorta. Ta bueno ba, Algorta ba. Eta Algorta jun, ta ordun dana txaletak eta dana rekisauta zaben ba, etxiak danak rekisatzen zittuen, ta zean, ta. Txalet batian sartu emen giñuzen. Txaleta emen zan. Baiña istoriya ere beste bat e bada hor. Ni kalenturakin hasi. Hamar urte, neska koskorra. Ta kalenturak eta kalenturak eta, ez nintzan ondo eongo itxura, eta beste ospital txiki bat zan, haura ere seguruena rekisautako ospitalen bat izango zan. "Lo que sea". Eta erderaz esaten dana, "fiebres tifoideas". E? "Vaya regalo". Nik.
- Billatu zizuen?
- Nik. E? Han ingresauta. Familiya etxian, ta ni ospitalian. Bi hillebete.
- Bi hillebete?
- Bi hillebete. Baiña, horreatikan ba nik esaten det e? "Libro de Petete" txikigiya da guretzako. Ixtori guztik, eta...
- Ta bi hillebeten egon ziñan han e?
- Bai, egun bat geyo o gutxiyo, baiña bi hillebetian. Ta handikan ere erten ein ber gendun ba, moruak zatozten ba, moruak. Moruak? Enfin. Eta handikan e erten ein ber gendun nunbaittea.
- Baina sendatuta atera ziñan ala...?
- Ez, artian ondo sendatu gabe neon ni.
- Alde in behar izan zendun.
- Bai, artian jaikitzen hasi gabe. Egundua haientanxe jaikitzen hasiko emen nintzan, jaiki niñun nik egunik onduena.
- Eta egundua haietan ama ta beti juten zian?
- Bai, bai, egundua ez bazan, bai, egundua izan leike. Juten zian, eoten giñan pixkatian, ta ni neska koskorra hantxe, eta bueno, hor juten zian.
- Bazituzun gehio ere edadekuak?
- Bai, beste ohian ere nere edade modukua zan, bai, ta gero beste

kuartutan ez dakit, porke esaten dizut, ez nintzan jeikitzea allegau ta!

13. Getxotik irtetea, arropak galdu zizkieten

- **Erref:** ZES-042/017
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:33:03. **Bukatu:** 00:35:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Mairuak zetoze eta ospitaletik atera zirenean, Getxoko portuan barkura sartu eta Laredora eraman zituzten, soinean zuten arropa soilik utziaz.

Transkripzioa

- Bueno, bazatozten ba, etorri ber zuen hoiek, eta artien erten in ber gendun ba nunbaittea, kasuen. Eta Getxon geunden gu, oain Getxo, Algorta, baiña Getxo. Neguri. Ta ez dakit nun egongo dan han, puertua eongo zan, puertua egongo zan. Sartu giñuzen danok ume ta andre pillo bat, zean, en gasolinderas edo zea hoitakuan, txukutxukutxukutxuku juden dien hoitakuan. Ta lau prenda eukiko, lau erropa eukiko giñuzen, lotuta hola, izeten dia ba, toreruak eta ibiltzen due ba zea, paiñuelo haundi batian hola lotuta, halako bat, idea daukat, ez dakit asko, baiña idea daukat, hala zialakuk gure lau arropa haiek. Guk hamen sartu ber gendun ta dzenda! Ta beste gasolinera batea gure erropak, eta haiek Santurtzin ta gu Laredon.

- Banatu in zizuen?

- Klaro. Haiek guk jun ber gendun ontziyan eaman bazittun, guk hurrungo egunian ze jantzi bagendukan. Baiña sondiñen genezkan erropakin bakarrik gelditu giñan.

- Baiña zuek danok, danok batea.

- Bai,

- Erropa bialdu arren, zuek danak batea.

- Bai, anai-arrebak bai. Anaya ordurako soldadu! Soldadu edo militarrek hartu zuen, ta hor zabillen.

- Oseake soiñean zeukazuenakin bakarrik utzi zizuen?

- Soiñen gendukanakin bakarrik. Nere aurreko mutilla... oin bizi da, oaintxen, oaintxen in ber ditu datorren astian hogeita bostian in ber dittu larogeita beatzi urte. Nere ahizpak. Haura bizi da Ermuan. Biyok bakarrik bizi gea oin. Sei giñan. Eta haura, ni baiño aurreagoko mutilla, bi urte zaharragua zana, ni, eta bestiak koxkorritua, ni baiño gaztiagua zana. Ta ama. Gu danok toki batea jun giñan, baiña erropak beste nunbaittea. Por ahí.

- Eta zuek noa jun ziñaten?

- Laredoa.

- Laredoa?

- Bai.

14. Kantabrian egon zireneko bizimodua

- **Erref:** ZES-042/018
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:38:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Laredon autobusetan sartu, eta Santanderko herrixka bateko baserri batera. Etxe hartan familia bat bizi zen, ganadu eta landare-lanetatik bizi ziren. Arreba bat beste etxe batera eraman zuten handik gertuan, eta elkar ikusten zuten.

Transkripzioa

- Ta Laredon? Nun aterrizatu zenduen han?

- Laredon...

- Nun? Noa eaman zizuen?

- Hartu, eman giñuzen zean, autobusetan hartu eta nunbaittea, ba al dakizu zer dan nunbaittea? Nunbaittea, kristo ez dakit aillauko zan toki hartu. Erderaz esaten dana, aldea bat e? Santanderko zea batea, Riaño, ez Asturiaskua e? Santanderren bazan, eongo da, zea, herri txikin bat izengo zan. Nik ez naiz geyegi akordatzen, baiña, Riaño, baserri batian. Baserri bat, baiña...

- Baserri bat?

- Bai, baiña beak zian zeak, este, "pasiegos no eran", ez naiz akordatzen oin izena nola esaten ziyoen. Beak juten zian itxura etxetikan mendira belarra, been negoziyo eta ganauak eo mendian zeuzken. Ta guk gelditzen giñan astian, astian aste bat egun batzuetan bakarrikan, etxian, gure ama ta gu. Ta beak etxeoandria, han etxeoandria, ta hiru-lau mutikokor bat zittuen, ta haiek juten zian mendira been belarrak eo negoziyuak eo ganauak eo ez dakit zer zauzken. Ez dakit zer zauzken.

- Baiña zuek etxe hartu, zenen bidez jun ziñaten o? Hauntzaxea eraman zizuen ta bale o?

- Ez, gobiernuak edo, gu, esaten dizut ba, baten batek agintzen zigun ta...

- Hoi da.

- Ta zuek hairi laguntzen aitzen ziñaten han?

- Herri, herri... guk? Lagundu ez.

- Ez? Ez zenien...?

- Guk, guk aillatzen giñan tokita, baten batek herriko herriko jauntxuak, baten batek bazakiyen gu aillatu ber gendula, refugiau pillua, pillua.

- Ta haiek bialtzen zizuen ze etxeta jun?

- Bai, eta gu jun giñan etxe horta, ta gure ahizpa ta izeko ta beste etxe batea. Ahizpa ezkondua e? Bere, ta bi ume txikikin. Esan dizut ba, bixkiyak izan zittula? Eta bat hantxe hil zitzaion lau hillabetekin.

- Eta alkar ikusten zenduen?

- Bai, bai, bai, urrian geunden, urrian geunden. Baiña ni artian "convaleciente" esaten da ba?

- Gaixo hartan?

- Gaixo? Gaixo, gure ama gaixua. Han baiño, han aiña arrautz, eta han aiña esne ez det edan! Baiña, on eingo zian, oindikan bizi naiz ta.

- Ta ze jaten zenduen?

- Hoixe! Nik hoixe.

- Arrautza ta...?

- Han neuk, nik neuk, nei amak, bai ba, ahula neon ni, gaixua neon, eta alimentatzeko beste gauza geyegi ez zan eongo, eta arroz kon letxe in, arroza ta esnia bazeon nahikua, porke ganadeiyak eta zea. Oin, nola hartzen gendun, pagauta, zenbat pagatzen gendun eo... hori ez naiz akordatzen e? Ez, ez nundik ekartzen zuen, dendan batetik... hori ez naiz akordatzen. Baiña, arroz kon letxe eta zea arrautza, arrautza natilla eo hola inda... bueno, haretzek salbau nindun ni e?

- Eta, zeak, botikaik eta ez zenduen?
- Ez. Ospitalian hartzen nun baiña... ospitalian ematen zien zeoze...
akordatzen naizela uste det selukumil ematen ziela. Ta beste oin bezela
botika, buruko miña daukaula ta pastilla?

15. Etxerako itzulera gogorra; kalean lo egin beharra

- **Erref:** ZES-042/019
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:38:08. **Bukatu:** 00:41:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Laredotik Riañora eraman zituzten. Atzera etxera bueltan, abiatu zirenean beraiek bezala ihesean zebiltzan milaka lagunekin elkartu ziren. Laredoko kalean lo egina da Matilde. Bidean zetoze, soldadu zegoen anaia aurkitu zuten. Gogoan du Bilbotik etxera trenez bueltatu zirela.

Transkripzioa

- Ta ordun Laredon zenbat denbora in zenduen?
- Ez, ezer ez. Geldittu ta jun. Ta gero Riañoa, ta han pasau giñuzen beste...
- Riañon, zenbat?
- Hori ba, bi hillabete t'erdi eo... eon zaitte, hori, eon, kalkulau gutxi gorabera e? Gutxi gorabera. Febreruan hemendik jun giñan, Durangon eon giñan, bi hillabete o horrela, gero Algorta beste bi hillebete t'erdi, lau hillebete, eta gero Riañon, ta etorri giñen atzea setiembrean. Zazpi hillabete, danea zazpi hillabete. Eta etorri giñan "nómadas, pero nómadas bien eh?"
- Eta atzea, buelta noiz in ziñaten?
- Hoixe esatea nijuan. Hoixe esatea nijuan. Lehenbiziko tramua ez dakit nola in gendun. Gero oiñez, baiña pilluak e? Ez gu bakarrik e? Andre ta ume! Klaro, atzea bueltan bagentozen, bakoitza bere... Lekeitiokuekin eta juntau giñan e? Hor, zeau, Riañon ta Lekeitiokuekin. Ta klaro, aurrea ta aurrea ta aurrea ta aurrea, ta haraiño jun giñanian "no hay más" esan gendun, ez guaz geyo aurrea. Eta anaya soldadu gendukan, eta haiek'e Asturiaseaiño jun emen zian. Eta handik aurrea juteik ez. Ez ziyoen utzi. Itxura, zeak zeuden tropak, beste aldeko tropak. Ta prisionero in zittuen, eta kanpo... Kastron uste det egon ziala, kanpo konzentraziyuan eo, baiña millakak e? Kanpo, zeau. Eta ba gu ez dakit nola etorriko giñan, ni Laredoko kalia lo inda nao. Ta ni bezela beste milla.
- Beharko?
- Beharko. Eta hurrengo goizian "pies, pa qué te quiero?" berriz'e segi. Laredon beittu gendun ia aber anaya han ete zeon. Bueno, barkatu, Santandertik alde honta, Laredo lenuo dao? Ala Kastro dao lenuo? Laredo eongo da. Hamendik Bilbotik haruntz Kastro eongo da lenuo Laredo baiño? Bueno, beittu gendun, ta han ez zeon. Gero Kastroa jun giñan berriz'e, "haciendo piernas", jun giñan Kastroaiño. Ez dakit zenbat kilometro in giñuzen egunian eo...
- Mordo bat bai, ingo zittuzuen!
- Ez dakit. Eta gero behintzat Kastron, eta hainbeste zea zauren, este este, refu... este, oaintxe esan dizut ba, prisionero! Ta italianuak haiek zaitzen. "Gusta macarron?" guri. Gosia... baita guk harriya're bai. "Sí!". Makarroia

ematen zigun, aizu. Haiek bai mutillak, orduan, momentu hartan behintzat. Anaya billau gendun, han zeon, ta harekin behintzat eon giñan, ta gero ez dakit. Gero akordatzen naiz Bilbotik honea...

- Joe, zea izango zan e? Anaye billatu zenduen...

- Bai, eta gero behintzat Bilbotik honea uste det trenian etorri giñala. Hori seguru ez dakit, hori ez dakit, hori ez dakit.

16. "Gorrien" diruak baliorik ez

- **Erref:** ZES-042/020
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:41:12. **Bukatu:** 00:42:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>"Gorriek" beraien diru propioa atera zuten eta Matilde eta sendikoak etxera bueltatu zirenean diru hark Euskal Herrian ez zuen baliorik, beraz, ezer gabe zeuden. Ezagun batek dirua eman zion Matilderen amari. Orduko dirua nolakoa zen deskribatzen du.</p>

Transkripzioa

- Eta beste gauza bat, lau pezeta eongo zian, baiña haiek Euskadiko diruak zian, porke zuk ez dakizu, jakin, igual ez dezu jakingo, baiña Euskadi Euskadi aldekuak, esan daiun nazionalistak eo zeak, been dirua atea zuen, been zonako euskal euskal... gorriyak esan daigun bizi zian aldeko zonakuak been dirua atera zuen. Ta alde honta etorrita, harek ez zun baliyo. "Y qué?" Eta baten batek eman emen ziyon gure amai ez dakit zenbat, hamar euro eo... asko da ba hamar euro, baiña... ordurako e? Gaiñea, idea, idea daukat [...] zuan soldadu bea, baiña nola oain esan deu Juan Jose Urrutia? Horren aittak. Horren aittak eman ziyola uste det, eskuetan ber gendun zeoze ta, Euskadiko dirua bai, baiña ez zun baliyo hamen! Ta holakotxe istoriyak, holakotxe istoriyak.

- Ze diru izaten zan ordun?

- Iguala. Txanpona e? Zea, baiña oin jarriko bagenduke Franco, o Francon alden, eta Erregian irudiyak eta, badaure ba? Ba orduan ez dakit ba zein izengo zan, Sabino Arana eo... eo gobiernuko, Euskadiko gobiernua, eo holako zea irudi, baiña hura zan Euskadikua. Ta gero beste zuriyentzako ez zun baliyo harek.

17. Gerratik itzultzean etxea errekitatuta

- **Erref:** ZES-042/021
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:42:43. **Bukatu:** 00:45:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Anaiak preso geratu behar izan zuen eta handik frontera eraman zuten. Matilde eta etxeokak Zestoara bueltatu ziren. Anaia Teruelgo frontean eta

beste zenbaitetan ibili zen, eta karta bidez jartzen ziren harremanetan berarekin. Kanpoan hainbeste denbora igaro eta etxera bueltatzean, etxea errekiatuta aurkitu zuten eta kalean geratu behar izan zuten; Elgoibarrera joan ziren amaren senitarteko batzuen etxera.

18. Errefuxiatu garaiak

- **Erref:** ZES-042/022
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:45:42. **Bukatu:** 00:47:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerratik ihesi ibili ziren garaian, errefuxiatu modura ibili ziren; jangelatan ematen zieten jaten. Zomorroz betetako babak izaten zituzten jateko.

Transkripzioa

- Ta bitarte hortan amak nunbaiten lan egiten zun?
- Ez, ez, ez, ez, ez, ez, ez, orduan ez zeon, ez, ez, ez, ez. Han ez zeon lanik. Han gu zaittu, gu zaittu, eske refugiauak giñan gu, gu refugiau giñan, eta eta gaiñea jaten ematen ziguen komedoriak esaten ziuena. Komedoria lentejak eta babak. Bai, baiña akordatzen naiz ni, babak zamorroz betetako hoik, ta jan ezin, baba beltzak hola zamorruakin, eta jan ezin. Eta ez dakit jaten zittuen, o ez zittuen, nik ez nun behintzat jaten, ni gaixo gaixo gaixo-ondorena neon, Santanderko Riañoko hortan. Ta akordatzen naiz juten giñala holako toki batea, etxe batea, eta haura komedoria o komedoria esaten zitzayoen, han perola ateratzen zittuen batzuk, banba ta banba, ta burruntzalika bana o zeoze, eta yasta.
- Txarra baiña ona e?
- Bai.
- Besteik ez danen.
- Ez dakizue zuek e?
- Ez, hoi probatu gabe, bizi gabe ez dao jakiteik.
- Zuek ez dakizue, zuek ez dakizue ezta ezta...
- Zuek kontatutakoa, baiña ez dago hoi jakitteik probatu gabe norbeak. Gosea ordun pasauko zenduen?
- Bai, bai, ni baiño geyo bestiak. Nik, esaten dizut, ni gaixua, ta nik nik esnia ta arrautza nahiko banuan, jateko gogua jateko gogua ere akaso ez nun geyegi eukiko, ez dakit. Baiña bai, ni bai, ta gure amak esaten zun "graziyak esniai" esne ona, ta esnia nahikua, eta graziyak hari, ba bizi. Bestela, komedoreko garbantzu hoiek jan ber izan banittun, ez nittun jango ta!
- Haragiik eta arraiik eta izaten zan? Ez?
- Hori, oaingo lujuak dia hoiek. Han ematen ziguena potajia jeneralian. Ez naiz ni akordau're iten asko, akordatzen...
- Eta erropaik eta erak ez zizuen ematen? Ez?
- Ez zuen emango, ez zuen emango. Ni ez naiz akordatzen. Baiña klaro, hamendikan jun ta galdu zitzaigun haiekin zazpi hillabetian ez giñan ba ibiliko baiña! Ba ez dakit ba nola itten gendun, erropa kontu hori ez naiz akordatzen.
- Baten batek lagunduko zizuen, juten ziñaten etxetan o igual ta?
- Ez naiz akordatzen.

19. Gerratik bueltan ume zaintzaile eta zerbitzari lanetan

- **Erref:** ZES-042/023
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:47:58. **Bukatu:** 00:51:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Zestoara itzuli zenean eskolan hasi zen berriz ere eta bitartean ume-zain ibili zen. Zestoako taberna batean zerbitzari lanetan ere aritu zen. Hileta ondorenetan Matilde neskame zegoen etxean ematen zuten lunch-a. Eskola ondorenean joaten zen tabernara lanera.

20. Arropen garbiketa

- **Erref:** ZES-042/025
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:52:00. **Bukatu:** 00:54:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Sukaldeko arraskara ez zen iristen eta koska baten gainera igota aritzen zen arropak garbitzen. Xaboa pastiletan izaten zen eta eskuz garbitu eta ganbaran zabaltzen zituzten arropak. Amak etxe askotan lan egin zuen eta hura labaderora joaten zen garbiketa egitera. Arropak hauts urdin batekin "aniltzen" ziren. Garbitokia non zegoen deskribatzen du.

21. Lurra belauniko jarrita garbitzen zuten

- **Erref:** ZES-042/027
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:54:41. **Bukatu:** 00:57:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Lehengo sukaldea deskribatzen du. Lurra belauniko jarrita lixiba urarekin eskuilaz garbitzen zuten astean bitan. Hanka azpian alanbre bat jarri eta argizaria harekin kendu eta berriz pasatzen zuten. Garbiketako tresnak deskribatzen ditu.

22. 14 urterekin eskola utzi eta neskame-lanetara

- **Erref:** ZES-042/029
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:58:48. **Bukatu:** 01:00:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

14 urterekin eskola utzi eta neskame hasi zen 18 urtera arte. Umezain ibili zen eta ume haien inguruan hitz egiten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com